

Helduen Euskalduntze Alfabetatzea eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

Josune Ariztondo

Jardun honek hiru zati nagusi ditu: 1) batetik, helduen euskalduntze-alfabetatzearen deskribapen diakronikoa egingo dut; 2) bestetik, Euskara biziberritzeko plan estrategikoaren arrasto nagusiak azalduko ditut, helduen euskalduntze-alfabetatzearen alorrak plan honetan duen lekua zein den adierazteko, batez ere, eta 3) azkenik, plan horren baitan eta hizkuntza-politikagintzan helduen euskalduntze-alfabetatzeak dituen lehentasun eta erronkak mahairatzen saiatuko naiz.

Helduen euskalduntze- alfabetatzearen historia modukoa

Helduen alfabetatze eta euskalduntzearen historia egitea lan amaiezina izan daitekeenez, bildu eta argitara emana dagoenaren araberrako eskema modukoa egiteak dirudi egokiena. Honako lau epealditara ekarri daiteke helduen euskalduntze eta alfabetatzeak 1966an hasi eta 1996ra arte egin dako bidea:

*Hastapenak
(1966-1980)*

1966an koka daiteke lan-eremu honen hasiera, orduantxe jarri baitzen abian helduen alfabetatzea, Rikardo Arregiren eskutik bereziki. Laster antolatu ziren euskalduntzeko saioak ere eta eurok joan ziren apurka-apurka nagusitzen.

Gau-eskola bezala eta Euskaltzaindiaren Jagon sailaren baitan kokatuta aritu ziren lehen urteotan, guztien koordinakunde bat sortuta (AEK). Gau-eskolatik euskaltegi izateko, hau da, egun osoan lan honetara emandako irakasleak eta egoitza berezituak izateko lehen erabakiak 1976 urtearen inguruan mamitu ziren Bilbon eta Donostian.

*Instituzionalizatzea
(1981-1984)*

Eusko Kontseilu Nagusiaren garaian (1979-80), helduen alfabetatze eta euskalduntzeari babes eta egitura publikoa emateko zenbait saiok porrot egin zuenez, 1981an bi erabaki garrantzitsu hartu ziren:

- Batetik, Euskaltzaindiak bere babesetik kanpo utzi zuen AEK, eta honek, gero, egitura autonomoa hartuko zuen.
- Bestetik, Eusko Jaurlaritzak helduen alfabetatze eta berreuskalduntze-rako Erakunde publikoa sortu zuen, gero (1983an) Legebiltzarrak lege bidez Erakunde Autonomiadun bilakatuko zuena.

Harrez geroztik, euskaltegiak asko garatuko dira, bai HABEren ekimen zuzenez sortutako publikoak eta bai irakasle-taldeek eurek sortutakoak.

Hedapena (1981-1987)

Nahiz eta hedapena batez ere 84-87 urte bitartean gertatu, helduen alfabetatze-euskalduntzearen zabalkunde-garaia 1981an hasi eta 7 ikasturtera bitartekoa izan zen (ikus. 1).

.1:

<i>Euskaltegiak</i>				<i>Irakasleen dedikazioa</i>		
Urtea	Publikoak	Homologatuak	Libreak	Urteak	Irakasleak	Egun osoz
1981-82	7	3	183	1981-82	?	150 ±
1986-87	48	26	157	1986-87	2.093	1.100 ±

<i>Ikasleak</i>				<i>Diru-baliabideak</i>	
Urtea	Matrikulak	Orduak (milaka)	Pertsonak	HABEren diru-laguntzak	
1981-82	22.153	4.161	?	1982	1987
1986-87	77.559	13.645	46.487	77.400.000 pta. ±	1.145.718.000

Geldotze-garaia (1987-1991)

Inguruko egoerak horretara eramanda edo, helduen alfabetatze-euskalduntzeak bere gailurra 1986-87 ikasturtean jo zuela dirudi, hurrengo urteetan malda behera sumatzen baita arlo osoa:

- Apenas udal-euskaltegi berririk sortzen den.
- Giza ekimenezko euskaltegiak sortzen badira ere, nagusiki IKA eta ABEGI sortzearen ondorio izan da.
- Ikasleak nabarmen behera egiten dute, bi ikasturtetan % 17,7 jaitsiz.
- Irakasleen kopurua ere, proportzio bertsuan jaisten da.

Datuok are adierazgarriagoak dira, tarte horretan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetako langileen euskalduntzeko plan-gintza martxan jarri zelako, eta horien eskolaratzea helduen alfabetatze-euskalduntzerako sektoreak bere gain hartu zuelako. Bestalde, kontuan hartzekoa da HABEk euskaltegiei ematen zien diru-laguntzen kopurua 2.000 milioitik gorakoa izan zela urte horietan.

Azken urteak (1992-96)

Aurreko urteetan gertatu zen euskaltegien garapenak, eta irakasleen profesionalizazioak, lan-arlo honen etorkizuna ziurtatu nahia ekarri zuten,

euren diru-iturri nagusia zen administrazioaren diru-laguntzari zegokio-
nez, batez ere. Horrela, bada, irakasleen ezaugarriari begiratzan badiegu
(ikus. 2), berehala ulertuko dugu etorkizunari buruzko kezka hori sortu
izana.

.2:

Adina

Helduen euskara-irakaslea izateko eskakizun
akademikoak

	Egun osoko dedik.	Adina				Urtea	Ikasketak eta bestelakoak			
		17-21	22-26	27-31	>31		Goi- mailakoak	Erdi- mailakoak	Habil	Habilitazio bidean
86-87	%54	%15	%50	%20	%15	86-87	%22	%32	-	-
96-97	%64	%1	%16	%38	%45	96-97	%47	%32	%13	%8

Euskal filologia eta magisteritza ikasitako jende-andana handia dator
sektore honetara lan bila, lan normalizatu baten bila, unibertsitatetik ate-
ratzen diren titulatuentzako Hezkuntza Sailak ez baitu ia lanpostu berri-
rik sortzen. Gainera, lehendik euskaltegietan ari diren irakasleak ere
konpromisoak hartzeko adinean daude, hein handi batean. Bestalde,
aipatzekoa da Udalek 1991n HABErekin sinatutako hitzarmenarekin
hasitako bideari euskaltegi homologatuek heltzen diotela, horretarako
BERTAN federazioa sortuz.

Eta, azkenik, HABEren sorreratik bertatik harreman gatazkatsuak izan
zituzten HABEren eta AEKren arteko etorkizuna ere eztabaidatu eta
konponbidean jarri zen, 1994aren amaieran lehen hitzarmena sinatuz.
Garai honetako egoera islatzeko, oinarrizko datu batzuk ikustea komeni
da (.3), guztiak 1996-97 ikasturteari dagozkionak.

.3:

Datu orokorrak

Ikasleak hasiera urratsaren
arabera (%)

Sarea	Euskal- tegiak	Ikasleak	Matrikulak	Or. (%)
U. E.	40	12.290	13.258	29,1
BERTAN	15	10.522	12.874	24,9
AEK	72	15.309	16.874	29,9
IKA	4	2.894	3.571	6,9
Besterik	26	4.984	6.823	9,1
Guztira	157	43.757	53.373	99,9

1-3	4-6	7-9	10-12	Alfa.
38,63	27,72	17,89	9,51	6,26

Ikasleak ikasketen arabera (%)

Goi-maila	Erdi-maila	UBI LH II	Beste
22,71	16,34	34,21	26,74

Bermatrikulaketa (aurreko urtearekiko hurren-
goan matrikulatzen direnak)

Non	Ikasleak
Euskaltegi berean	%35,89
Beste euskaltegian	%49,6

**Euskara
biziberritzeko
plan nagusia eta
euskalduntze-
alfabetatzea**

Euskalduntze-alfabetatzea Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren alor estrategikoetako bat da eta, arlo honek etorkizunerako dituen erronka nagusiak zehazten hasi aurretik, ezinbestekoa deritzogu euskararen plan estrategiko honen arrasto nagusiak aipatzeari, berau izango baita datozen urteetan hizkuntza-politikagintzarako tresna nagusia. Plan honetan, datozen urteetarako erronka nagusiak hiru mailatan daude bereizita, hala nola, helburu nagusia; helburu estrategikoak eta helburu zehatz edo proposamen-egitasmoak.

Helburu nagusia

Funtzio soziolinguistikoetan aurrerapauso handiak egin diren arren, euskararen egoera beste hizkuntza gutxituen antzekoa da oraindik: hainbat gizarte-esparrutan oso presentzia ahula du; gehien aurreratu duen eremuetan ere egoera ez da inola ere erdararen parekoa. Halere, gogoan dugu hizkuntzen berdintasunaren diskurtsoak antzu bihur lezakeela hizkuntza gutxituen aldeko ahalegina: egunerokotasuna irabazita ez dagoenean, arriskutsua izan daiteke lehentasun garbirik finkatu gabe aldi berean eta esparru guztietara hedatu nahi izatea. Horrexegatik, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia, hauxe da: Euskal Herrian euskararen berreskurapen osoa lortzeko maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskararen aldeko urratsak areagotzea. Hizkuntza-komunitatearen eskubide kolektiboak ukatu gabe, herritar bakoitzaren hizkuntza-eskubideak guztiz errespetatuak izan daitezen lortzeko urratsak areagotzea, jakinik botere publikoek eskubide hauek babesten dituztela; euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea, horrela bakarrik bermatuko baita euskararen biziraupena eta normalizazioa.

*Helburu
estrategikoak*

Hiru hauek dira:

- 1 *Lehenengoa, Euskara, belaunez belaun eta etenik gabe ondorengoetaratzea.* Euskararen geroratzea familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez eta hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz lortzen da, batez ere. Baliabide, bitarteko edo elikadura batzuk beharrezkoak ditu edozein hizkuntzak bizirik irauteko eta belaunez belaun ondorengoetaratzeko.
- 2 *Bigarrenak hauxe dio: Datozen hamar urteotako erronkarik nagusia belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitean datza. Horretarako, euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu garrantzizkoetara zabaldu behar da.* Esaterako, lan mundura, aisira, kirolerako eta komunikabideetako produktuen kontsumora, bai eta funtzio afektibo eta sinbolikoetara ere, hala nola familiako harremanetara, lagunartera, gizarte bizitzara etab. Euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza dira hurrengo hamar urteotan egin beharreko ahalegin garrantzitsuenak (kalitatezko euskal produktu eta zerbitzuen eskaintza alegia).
- 3 *Hirugarrena, euskararen elikadurarekin dago lotuta: hizkuntza eroso eta erraz hitz egiteko elikatu egin behar da, liburu, irrati, aldizkari,*

*egunkari telebista eta abarren bidez. Euskara bigarren hizkuntza gisa eskolan ikasi duen euskaldun berriari (batez ere) dituen hizkuntza-
-ezagupenak sendotzen euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen lagundu behar zaio.*

*Helduen
euskalduntze-
-alfabetatzerako
proposamenak*

Euskararen Aholku Batzordean adierazitako lehen proposamenen eraginkortasunaren eta bideragarritasunaren gaineko azterketa egin ondoren, bi mailatako proposamenak berezi dira alor honetan:

Lehenetsitako proposamena:

- *Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu behar dira, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun soziolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik amaieraraino ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.*

Bigarren mailako proposamenak:

- Emaitei buruzko gogoeta sakona egin behar da. Kalitate-irizpideak finkatu eta adostu: adierazle egokiak aukeratu, bakoitzaren pisua erabaki, euskaltegien emaitzak aztertu eta onenak saritzeko mekanismoak antolatu. Funtzionarioak zein irakasleak euskalduntzeko egitasmoak sakonki aztertu, neurtu eta eraberritu.
- Euskalduntze-alfabetatzearen kurrikulu berriak egin (euskalkien tratuera eta kultur edukiak kontuan hartuz) eta euskaltegi guztietara hedatu HABEk ahailegin handiagoa eginez unibertsitatearekin batera jardun didaktikoa hobetzeko.
- Langintza honetan diharduten taldeen normalizaziorako urratsak areagotu egin behar dira: eskualde mailan, ikasmaila guztiak eskaini euskaltegien egungo neurriak irizpide horretara egokituz.

*Helduen
euskalduntze-
-alfabetatze alorrak
dituen erroka
nagusiak*

Euskara Biziberritzeko Plan nagusiak adierazteko irizpideotan oinarrituta, honako urratsok egin ditu edo egiten ari da helduen alfabetatze-euskalduntzea, HABEren gidaritzapean:

- 1 *Irakasleen homologazioa.* Aurrerapauso nabariak egin diren arren, badago oraindik gutxieneko ikasketarik ez duen irakasle-multzo bat, irakasleen %8 hain zuzen ere, eta hauek guztiek diplomatura bidea jorratuko dute eta homologazio akademikoa lortuko 2000garren urterako. *Irakasleen lan-baldintzen homologazioari* dagokionez, alde handiak daude euskaltegi edo euskaltegi-talde batetik bestera alor honetan. Era guztietako egoerak aurki daitezke erabat egoera normalizatua duten udal-euskaltegietatik irakasleak nahikoa baldintza kaxkarretan dauzkaten euskaltegiatarainoko tartean. Adibide gisa,

HABEk 1997-98 ikasturtean jaso dituen datuen arabera, eskola-orduko irakasle-kostua 5.870 pezetatik 2.000 pezetatara doa (1995ean 1.600 pezetatakoa zen). Lan-baldintzen artean honelako aldeak dauden arren, gaurko egunean euskaltegi guztietako langileak dituzte lan-kontratuak eta hau lorpen garrantzizkoa da kontuan hartzen badugu oraindik duela hiru urte langileren %35ak ez zuela inolako lan-kontraturik.

- 2 *Irakasleen prestakuntza.* Gabezia nabariak atzematen dira bigarren hizkuntzen irakaskuntza-prozesuan. Horiek gainditu asmoz orain arte egin diren saioak, prestakuntza-plangintzak, eta berziklatzeko ikastaroak ebaluatu dira eta aurrerantzean burutu beharrekoak planifikatu ere bai horretarako eratuta dagoen batzordearen bidez. Batzorde horretan kide dira euskaltegi-sare guztietako ordezkariak.
- 3 *Baliabideak zuzen antolatzeko asmoz eta bikoizketarik gerta ez dadin, legealdi honetan euskaltegien mapa burutzen ari da HABE.* Mapa horretan, euskaltegiekin sinatuta den hitzarmen-markoak dioen bezala, “alfabetatze-euskalduntzearen ikasle-ordu kopuru osoa jasoko da, hiru irizpide hauek kontuan izanik:
 - Diruz lagunduko den ikasle-ordu kopuru osoaren barnean, hizkuntza-politikarako lehentasun zein behar bereziak jasoko dira, beti ere, lehentasun osoa emanez erabilera-planen ondorioz etorritako ikasleei.
 - Euskaltegi publikoen eta gizarte-ekimenezko euskaltegien neurria, osagarritasun-printzipioan oinarrituko da.
 - Euskaltegien mapak izango duen eskaintza unitatea eskualdea izango da, unitate horretan maila eta ordutegi osatuak eskainiko direlarik”.

Esan beharra dago erabakiko den maparen urratsak urtez urte euskaltegi bakoitzaren neurriraketaren bidez egiten ari direla.

- 4 *Euskaltegien emaitzak.* Helduen alfabetatze-euskalduntzeak urteotan egin duen lanaren emaitzak aztertu beharrean gaude. HABEk emaitzak neurtzeko proposatu dituen adierazleak lau multzotan banatu dira: emaitza akademikoak, irakasleen egoera, ikaslearen ezaugarriak eta egoera ekonomikoa. Adibide gisa, aipa ditzagun emaitza akademikoekin zerikusia daukatenak: bermatrikulaketa, matrikula-orduen batez bestekoa, ratioa, asistentzia eta lortutako urrats-kopurua.

Euskaltegi-talde bakoitzak adierazle horiekiko duen egoera eta bilakera aztertuko ditu eta horren baitan hobekuntzarako proposamenak egingo ditu. Azken batean, *ahalik eta eperik laburrenean ahalik eta hitzun gaitu gehien lortzeko* euskaltegiaren jardueran eragin beharreko zuzenketak zeintzuk diren finkatu beharko da.

- 5 *Diru-laguntzak orekatzea.* Garbi ikusten da HABEren diru-laguntzak euskaltegi edo euskaltegi-sare bakoitzak eskaintzen duen zerbitzuari egokitu beharra eta, batez ere, sare publikoari eta pribatuari ematen zaizkion diru-laguntzen arteko oreka lortzera jo beharra. Udal-

-euskaltegiek 1995ean, ikasle-orduen %29 emanda, HABEren diru-laguntzen %44,08 eskuratu zuten bitartean, euskaltegi pribatuek orduen %71 emanda, diruaren %55,92 eskuratu zuten. 1997ko diru-laguntzetan, jadanik, oreka lortzeko bidean lehen urratsak egin ondoren, udal-euskaltegiek HABEren diru-laguntzen %39,8a jaso zuten eta pribatuek %60,2.

6 *Kurrikuluaren berrikuntza.* Ikasleen ezaugarri pertsonalak eta hizkuntza-beharrek kontuan hartuz, euskararen ikasprozesua ahalik eta gehien horietara egokitzea ahalbidetuko duen kurrikulu berria sortu eta esperimentatzen ari da HABE, gero euskaltegi guztien lana hobetzeko tresna baliagarria izango baita.

7 *Alfabetatzea suspertu beharra.* Alfabetatzea suspertzeko bideak egitea. Kontuan izanda azken urteotan alfabetatzen aritu diren ikasleak guztien %5 baino ez direla izan, alfabetatzera hurbiltzen diren euskaldun zaharren tipologia eta hizkuntza-trebakuntzarako beharren azterketa martxan dago une honetan. Alfabetatze-eskoletan diharduten irakasleekin elkarlanean, egiten den lanaren hustuketa egin ondoren, etorkizuneko alfabetatzeko eskaintza diseinatuko da ikasturte honen bukaerarako: euskalkien tratamendua, xede berezietako programak, alfabetatze-programak, etab. Guztia kurrikulu berriaren eskutik egingo da.

Bestalde, euskaldun zaharrek euskararen ondorengotaratzeari duten garrantziaz jabeturik, euskaldun zaharren alfabetatzeko ezohiko modulazio, metodologia eta materiala prestatzen ari da HABE, froga moduan, euskaltegiek erabil dezaten.

8 *Euskaltegiaren autonomia.* Euskaltegi bakoitzak bere irakaskuntza-plana, behar du, baita bere finantza-autonomiara heltzeko urratsak egin ere. Hori dela eta, ezinbestean hazi beharra dago, asko hazi ere, euskaltegiaren autofinantza-maila, hau da, euskaltegi bakoitzak berak sortzen dituen diru-baliabideak, administrazio publikoetatik jasotzen duenaz aparte. HABEk gaur egun euskaltegien jardueraren kostuaren erditik gora diruz laguntzen du.

Azken batean, helburu nagusia, lehen esan bezala, ahalik eta eperik laburrenean hitzun gaitu gehien lortzea izanik, egungo emaitzak hobetzeak du lehentasun osoa HABEren iritziz. Horrekin batera, herri-aginginteen aurrekontuen gorabeherak gorabehera, euskaltegien sarrera propioak ziurtatzeak bermatuko du euskaltegien etorkizuna.

9 *Euskaltegiak eta erabilera-planak.* Euskaltegiek leku oso esanguratsua dute euskararen normalizazioan, euskararen erabilera bermatzeko hizkuntza-gaitasuna ezinbesteko baldintza delako. Hau guztia dela eta, euskaltegiek, euren planifikazioa egiten dutenean kontuan hartu beharko dute lehenetsi egin behar dituztela hainbat ikasle edo ikasle-talde, gehienbat lehentasunezko esparruetakoak direnak eta hain zuzen ere erabilera-planetan parte hartzen dutenak: dendari, sektore sozioekonomikoko, guraso, herri-langile, irakasle... Honek guztiak ahalegin berezia eska dezake ikas-moduluak antolatzerakoan, ikasmaterialak prestatzerakoan, egutegi eta ordutegi diseinatzerakoan,

etab. Baina, hor dago euskalduntze-alfabetatzearen errentagarritasunaren adierazlerik nagusienetarikoa. Jakitun naiz honetan sektoreko hainbat euskaltegi badabilela baina ibilbide luzea da begi-bistan daukaguna eta esandako honetan arreta berezia jartzea beharrezkoa izango da datozen urteetan.